

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

333n. zenbakia

2007 abendua

ZARR



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

GUDALDIA: ERRUSIA ´RA IKUSTALDIA

Barandiaran´ek batutako testigantzen artean Busturia´tar Julian´ena da bat, 1938n. urteko urterilaren 14n. egunean izenpetua. Ortze agertzen da aldi aretan Errusia´ra egin eben ikustaldiaren barria. Jakingarri asko dagoz or eta orregaitik idazten dogu lan au. Egia esan, euskaldunai ez jaken atsegin izan Errusia.

Urrillaren 23n. egunean joan nintzan Errusia´ra: ELA´edo Orduan esaten zan lez Soli´ren ordeztu niñoiari. Errusia´ko Gobernuak deitu eutson España´koari langilleen ordeztu batzuk bialtzeko sobiet sortu zala urteak betetzen ziralako.. Irujo izan zan guri dei ori ekarri euskuna.

Bilbao´tik urten giñan guda-ontzi baten urrillaren 23n. egunean. Egun beratan eldu giñan Donibane Loitzun´era. Goizeko seiretan urten giñan emendik eta 25n. egunean goizeko ordu bietan eldu giñan Bartzelona´ra. Emen batu giñan beste amabi bide-lagunegaz.

30n. eguneran Bartzelona´tik urten eta 31n. egunean eldu giñan Paris´era. Emen iru egun egin eta London´era joan giñan eta egun bat egin gendun uri onetan. Londontar areik itxura txarrekoak ziran gutzat

Finlandia´ra urrengo. Gero Kopenhage´n beste egun bat. Urrengo Leningrado´ra. Ondo artu ginduezan, kaleak apainduta eta lorak emonda. Ona arte 3n. maillako jesarlekuak geunkazan, baiña emendi aurrera lº maillakoak. Janariak ugari emon euskuezan. Erriko jentea txiroa eta txarto jantzia zan.

Leningrado urira urreratu giñanean polizi batzuk gure politika- eritxiak eskatu euskuezan, baita zein lan egiten gendun eta zein sindikatotakoak giñan. Nik marralaria nintzala eta JEL´tzalea esan neutsen. ELA edo SOLI´koa.

Gu ikusi ginduzan jakitun batek, zelakoak giñan itandu eutsoenean, “langilleak izan ezin edozer” erantzun eban.

Erri-aurrean aurkeztu ginduezan, millak personak egozan plaza baten. Askok egin eben erri-aurrean berba, errusiera´ra itzulikeran edozen gauza esaten eben itzultzaileak.

Ostatu-etxe aundi batera eroan ginduezan. Orkestea ba-egoan baiña serbitzailleak txarto jantzita. Ondo emon euskuen jaten.

Lantegi bat ikustera eroan ginduezan: Funditzaileak, doitzailleak... ondo lan egiten ikusi genduzan. Lantegian ez neban ikusi jan-tokirik eta osasun-tokirik be ez. Fresadora bat ikusi nai izan neban astiro, baiña ez eusten itzi.

Beste toki asko ikusi genduzan.

Tzar´en etxea ikustera be eroan ginduezan, anbar utsezko gela bat, beste bat marfil utsezkoa, dantza-leku ederrak... Orain langilleen atsedeen-lekua ei zan.

Iru egun egin genduzan Leningrado´n. Andik Moskou´ra... An aurkitu genduzan España´tik joan-

barriak ziran langilleak. Ogei inguru ziran eta emakumeak eurretatik lau.

Zer ikusi gendun? Egunean egazkin bat egiten eban lantokia, euntegiak, narrukiak... Metroa be ikusi gendun, oso modernoa eta ona. Eskekorik ez neban ikusi, elbarrituen bat izan ezik.

Emagalduek be ikusten ziran kaleetan. Sifilis´en aurkako gaiso-etxeak be ba-dagoz.

Ez dot sekula iñon ikusi Moskou´n ikusi neban beste mozkorti kaleetan.

Emakumeak dira kale-zain gauetan eta otzikaraz ikusten dira.

Egun bat egin gendun Lenin´en museoa ikusten. Antxe dagoz agirian Lenin´en ikasle-aldiko notak: danetan 5, lojikan 4.

Lenin´en illobi-ondotik igaro giñan. Antxe dago gorpua ukenduz igortzita. Gure Aita esan neban bere alde.

Beste egun baten Kemlin´a ikusi gendun: urre-bitxiak eta eleiz-jantzi ederrak ugari.

Umeen zine batzuk be ikusi genduzan.

Nire lagun baten adiskidea zan anarkista bat ikustera joan giñan. Emaztea aurkitu gendun etxean, bera Siberia´ra bialduta egoan bost urterako, Errusia´ko agintaritzak kaka zala esan ebalako. Andra arek ume bat eukan etxean eskarlatina´gaz eta ezin eban lortu lekuri gaiso-etxean. Zapata-lantegi baten egiten eban lan eta 180 rublo irabazten ebazan illean, eta alkilerria 12 rublo ordaintzen eban. Urrengo egun baten ara joan eta beste emakume bat aurkitu gendun. Onak be semea Siberia´n eukan. Eleiza batera be joan giñan eta ainbat egozan otoitzak egiten.

Dana egoala karu ikusi gendun. Nik aldean neukazan zapatak Bilbao´n 50 pezeta balio eben, Errusian 300 rublo. Maisu baten illean 400 rublo irabazten dauz. Eskoletan ez egoan kurutzerik, baiña bai ugarri Lenin´en eta Estalin´en argazkiak lorakaz.

Jenteak etxura tristea eta txiroa dauka kaleetan.

Amabost egun egin genduzan.

Kieb´era joan giñan eta erlejiñoaren aurkako museo bat ikusi gendun: Abadeak arro jantzita, zelan iruzur egiten dautsen erritarrai, okerreko eziketa emoten ebela, emakume bat billosik txakur bateri titia emoten semea negarrez lurrean egoala, gizona iruzurtu eban emakumea billosik kalean atzean abade bai ebala...

Bizi giñan ostatuan, atean, emakume bat egoan eskean.

Kieb´en iru egun eginda, barriro Moskou´ra joan giñan, gero Leningrado´ra, eta emen Siberia izeneko itxas-ontzi bat artu gendun eta emoitiz lez 15 libra emon euskuezan bakoitxari.

Eta etorteko London, Paris, Toulouse, Baiona, Bilbao. 1936ko Natibitate goizean eldu nintzan.

LAGUNDU NIRI!

Idaz-lan onetan abadetzarako eleiz-deiari buruz mintzatuko naz.

Gauza argia da bokaziñoak urri dagozela gure giro onetan.

Jaungoikoaren gauzea ete da ori? Baiña itzi daigun arazo ori alde batera gaurkoz, eta aurrean daukagun arazoa bideratu dagigun.

...

Noizean bein ikusten doguz deituak izan leitekezan umeak edo gaztetxuak. Zelan jakin nor dagon egoera orretan?

Geienetan ezaugarri bi agertuko dira: Sendi egokia eta katekesi bizi-emoillea.

Olako egoeran dagon ume edo gaztetxu batek aulako zerbait esaten dausku isillean: Lagundu niri!

...

Eta dei orregaz bat egin bear dau laguntzailearen erantzun isillak: Emen naukazu laguntzaille!

Une onetan asi eta ikusten ez dan isilleko kordel batek lotzen dauz lagundua ta laguntzaillea.

Kordel ori nasai itzi bear da beti! Noizean bein tirakada txiki bat egin al izango da, baiña lagunduaren askatasuna beti aintzat artzen dala.

...

Lenengo unea une oargarria da baiña laster etorriko dira beste une oargarriago batzuk.

Bat lagunduak etorkizuna lenengo aztertzen dauanean izango da, geienetan bera be konturatu barik: Barruko

jokabidea sortuko jako, baiña kordelaren tirakadea osoan alboratu bagerik.

Une onetan laguntzailleak zurtasun aundiagaz jokatu bearko dau, ezertan be lagundua beartu bagerik.

Urteak aurrera lagunduari aukerea egiteko ordua etorriko jako. Kontuz laguntzaille! Ez beartu! Kordelari tirakadaxua egin, baiña kontuz!.

Eleiz-bidea bagerik beste bide bat artzen dauala? Aske itzi! Ez dozu denporea galdu. Ikusi zure inguruan beste olakoren bat dagoan. Eta laguntza eten ba' da be ez galdu adiskidetasuna

...

Lagunduak baietza emoten ba'dau, aundia izango da laguntzailearen poza eta lan oneri oraindiño urteetan jarraitu bearko dautso.

Noiz arte? Gitxienez lagundua abadea izan arte. Eta geroago be bai bear ba'da! Zergaitik ez bizitza guztirako?

Laguntza onek geroago ta geiago artuko dau antxiñako gogo-zuzendaritzaren (dirección espiritual) antza.

...

Laguntza-lan onetan iru arisku agertzen dira beti: Lagundua mizkatu bat biurtzekoa, bere erabagiak berak eta sendo artzeko gai ez dala.

Bigarrena lagundua beti menperatuta eukitekoa, bere askatasuna ta erantzukizuna ondo alkaru barik.

Eta irugarrena laguntza ori lar sentikorra izatearena Arduraz ibilli beite laguntzaille!

Olazar tar Martin'ek.

GABON ZORIONTSUAK



Gabon-jaiak urreratzen, gure irakurle guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zoriona.

Zoriona arrantzale ta itxaskariai, zoriona baserritar eta lantegietako langilleai.

Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoriona espetxeratu ta erbestetuai.

Zoriona gabon-gaba etxean eta bakez igaroko dabenai, zoriona zergaitik edo agaitik urrun dabilzanai.

Zoriona errigile ta politikariai, zoriona erritar zintzo ta baketsuai.

Zoriona gurasoai, zoriona seme-alaba ta aitita-amamai.

Zoriona Eleizako arduradunai, zoriona Barri ona gaurko arazoan argi lez jarri nai daben guztiai.

Zoriona erriaren alde burrukalaria diranai, zoriona isiltasunean erri-lana jakintza-saillean egiten dabenai.

Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.

Euskerazaleak

URTE BARRI ONA!

ZENBAIT ITZ

Euskera, ez datorrenez ez latiñetik, ez grezieratik, euzkerak jakintza-itzak soetzerakoan, bi izkuntza oiei begiratu bearrean, bere-bereak ditun zuztarrak erabilliaz, ikasleak errezago ulertu lezazken itzak antolatu ditzake, euzkera jatorra izateaz gaiñera, esan-naya arrotz izkuntz aiena baiño aixago ikasiko bai-du.

Ez al da ba amabi-aldeko, “dodecaedro” baiño argiagoa? Ez al da egokiagoa urasekortasuna “higroscopicidad” biurriaren kaltetan?

Ondoren, erderazko itz batzuek jarriko ditugu, dagokioten euskeralpen jatorra ondoan dutela:

1. Aritmética: ZENBAKIZTI
2. Astrología:
3. Astrólogo:
4. Bioquímica:
5. Concierto: (canto) ABESTALDI
(de música) ERESTALDI
6. Derecho: LAGIZTI
7. Dialéctica: EZBAIKETA, OLDOZPIDIZTI
8. Dialéctico: OLDOZPIDIZTIKO,
OLDOZPIDIZTILARI
9. Enología: ARDO-IZTI
10. Enólogo: ARDO-IZTILARI
11. Etimología: ITZ-SORKUN, ITZ-ERRO, ITZ-ZUZTAR
12. Etnógrafo: ABENDA-ELESTILARI
13. Etnología: ABENDA-IZTI
14. Etnólogo: ABENDA-IZTILARI
15. Euskerólogo: EUZKELIZTILARI
16. Física: ZERKIZTI
17. Físico: ZERKIZTILARI
18. Gramática: ELIZTI
19. Gramático: ELIZTILARI
- 20: Historia: EDESTI

- 21 Historiador: EDESTILARI
- 22 Historiografía: EDESTI-ELESTI
- 23 Ictiología: ARRAI-IZTI
- 24 Informática: ANTOLA-IZTI
- 25 Informático: ANTOLAIZTILARI
- 26 Jurista: LAGIZTILARI
- 27 Literato: ELERTILARI
- 28 Literatura: ELERTI
- 29 Lógica: BIDIZTI
- 30 Matemática: AINDOIZTI
- 31 Matemático: AINDOIZTILARI
- 32 Medicina: SENDAKINTZA
- 33 Metafísica: ORO-IZTI
- 34 Música (arte): ERESERTI
- 35 Música: ERESI
- 36 Músico: ERESLARI, ERESGILLE
- 37 Musicólogo: ERESERTILARI
- 38 Obra musical: ERESKI
- 39 Obra teatral: ANTZERKI
- 40 Ópera: ERES-ANTZERKI
- 41 Ornitología: EGAZTIZTI
- 42 Orquesta: ERES-TALDE
- 43 Poema: OLERKI
- 44 Poesía: OLERTI
- 45 Poeta: OLERKARI
- 46 Química: ZEREZKIZTI
- 47 Químico: ZEREZKIZTILARI
- 48 Religión: UZKURTZ
- 49 Teatro (arte): ANTZERTI
- 50 Vascólogo: EUZKELIZTILARI

Orra or, ulerpide soil gixa, euskerak jakintza itzak adierazteko duan indar bereiz-bereizia, ludian zear izkuntza gutxik dutena, beste erri batzuetarik bereizten gaituan berezitasuna izaki...

– **Legorreta'ko Itxasne Denaren Baseliza (Mariñe Donearen ermita):** Itxasondo'rako bidean da. Leen prozesioan joaten ziran, letaniak otoiñez, errosarioa errezatuz itzultzen zizala. Sabeleko miña zuten aurrentzat, argi-ontzitik (lanparatio) gaimela (orioa) oizuten, txilborrean igurtzeko. Orain baselizan eztute gairik ospatzen.

– **Larte mendia:** Gipuzko'ko mendia; Tolosa, Belauntza ta Gaztelu errien tartean da. Eleza bat mintzo, Larte'n antziñan Gaztelu'tar batek ixilpean ustiatzen zun urrezko meatze bat da. Gizon ura zandu zan eta meatzea etzuten beñere arkitu. Illurren zegola, bakarrik adierazi zun, Berastegi'ko txadonaren gallurtegiari aurre emanaz zegola meatzea.

– **Euzko sendakintzako jakingarri bat;** oraindik orain, emakume batek zakurraren kozka nola sendatu zun adierazi zigun: intxaurra uretan egosten utzi, ta orrekin zauria igurtzi; atarramendu ona atera zion: Aita Santi'k “Euskaldunak eta Osasuna” idaztian, 145'gn. ingoskian onela dio: “Intxaur-ur egosia ona da azkordiañak, zauriak,

ema-sabelak, erredurak, begietako miña osatu ta tutu-jarioa ebagiteko”.

– **Gartziarena'tar Antso Abarka II'a (970-994)**

– Zeatz esaterik ez ba'dago ere, Naparro'ko Aldatz'en jayo omen zan. Beiñ Auñamendi'z arruntza zala, arabiarrek Naparro'n sartu zizala berri eman zioten, eta Antso Abarka'k

– bere gudarostea larruzko abarkez ornitu zuan; orrela ba, elurreztutako mendietatik obeto ibilli aalko ziran, eta maoma'tarrai nagusitu zitzaizkioten.

– Ala ta guztiz ere, bere bakal aldian Maomatarrek, Almanzor'ek batez ere, ondamentirik eragin zioten. Ori zala-ta, oparirik asko eskiñi bear izan zizkion, bai bere alaba ezkontzarako eskiñi ere, bakalderria gaizkatu aal zezan; arabiar edestilariet diotenez, bere alaba, “Abda” izena artuta, kistartasunari uko egin eta Maome'tar biurtu zan; ezkontza artatik, Almanzor il eta gero Al-Andalus jaurtuko zuan bere seme Antso'txo edo “Sanchuelo” jayo zan.

Azaldegi Txiki'koak, 2004'gn. Otsaillaren 8'an

UREPEL - XALBADORREN OROIMENEZ

1976 ureteko azaroaren 7an, omenaldia eskeintzen ziotenean il zen Fernando Aire "Xalbador". Aurrten ere aunka jende bildu da urepelen (Base-Nafarroa), Xalbador egiten zaion oroitzapenaren egunean, "Deidarra Elkartea" k deitu eta. Aurtengo onetan; Xalbador "amerikano eta artzaina" titulua izan zen aztergai, eta orretan pasatutako urteak nolakoak izan ziren jakinaraztea. Ura izan zen amerikanoen iloba, semea, osaba, aita, eta biloba. Xabier Euskitze zendaritzapean, mintzatu ziren Joxe Malea (Reno Unibertsitatea), Jesus Goñi,

Adiskide bat banuen
orotan biotz bera
Poesiaren egoek
Sendimenduzko bertsoek
Antzaldatzen dutena
Plazetako kantari bakardadez josia
Itzen lioa iruten Bere barnea irauten

Oinazez ikasia, ikasia
Nun ago, zer larretan
Urepeleko artzaina
Mendi egaletan gora, oritzapen den gerora
Iesetan joan intzana,
Esia urraturik libratu Uen kanta
Lotura guzietatik

Gorputzaren mugetatik aske senditu nairik
Azken atsa uela bertsoarik sakonena
Inoiz ezin diren
Estalitako egien bortitzenak,

Xole Erbiti

MANUEL LASARTE - OMENALDIA

Iruñeko Tafalla Jauregian 2007ko irailan antolatu da Manuel Lasarte bertsolariaren omenez erakusketa bat. Egun batez, bera propio egona da, eta unkituta ikusi dugu gizona. Erakusketa onekin, nolabait, eman nai izan zaio goramena bere obra eder eta oparitsuari. Eta ez da gutxiagorako. Berez, denok dakigun bezala, zein bertsolari fiña eta elegantea den, eta nafarroan sortua denez, dena merezi du.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Koldo Mitxelena Kulturunea, Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikako Sailordetza eta Euskal Telebistak izan dira erakusketa onen egileak. Omenaldiarekin batera, erakusketa ere antolatua da. Badira urteak Manuel Lasarte ez dabilela bertsolari saioetan, diot plazetan, osasun faltarengatik. Baina bai bertso jartzaile eta idazle gisa. Aita Antonio Zavalaren gidari duela, zortzi liburu argitaratu ditu Auspoa bilduman: "Bertso mordoxka", "Gordean neuzkanak", "Beranduko lanak", Lazkao-Txiki gogoan". "Enbor zarraren ezpalak", "Kantuaren ordañez", "Uztapide gogoan", eta azkenekoa, Erri-gizonak.

1981 urtean, Juanjo Franco egindako filmearen Bizitza, Eskola, Lana eta osasuna, Bertsolari lagunak, Sormena, Plaza-gizona eta Omenaldiak dira panelen titulak. Bideo batean gainera, jasotzen dira bertsolari bizitzaren pasadizoak. Bat-batean kantatutako bere bertsoetatik oberenetako batzuk erakusketan aditzeak jarri dira. Manuel Lasartek, kontatu dizkigu bere bizitzako ainbertze pasadizo. Leitzeko "Franki" baserrian jaio zen 1927 urtean, eta ez ziren izan urte errexak aiek, gazte sasoiko denboretan ere naiko lan. Bere bizitzako erakus leio onetan ikusi dateke pasatutako azken urteetako istoria.

baztandarra eta bertsolaria, Manuel Basabe (Elkon bertsolari), Joseba Etxarri, kazetaria, Benoit Etxeberry (Iparraldeko Euskosare), eta Mikel berekoetxea, (Kaliforniako Chinokoa). Baigorriko Arrola dantzari eta trikitilariak eta Xalbadorren ilobiak Aire Aizpak eta Xendarineko Aizpak. Bertsolariak, bertso paperak, etab. Gaur egun ere bertsolari andiaren oroitzua eta bere "Odolaren mintzoa", bizirik.

Emen jartzen dut Xabier Letek egindako kantu famatua, "Xalbadorren eriotzean", ongi ikasi eta abesteko.

Manual Lasartek zion, bertsolari bezala eun saio egin izan dituela eta uztapide eta Basarri lagunak zituela. Gai anitz ikutu ditu bere bertsolari ibileran. Ala ere, arek dio ez dela lan erraza bertsolaritza. Sortzetik datorren aalmena da, buru ona, izkeraren ezagupena, aots paregabea, eta bertze ainbeste gaitasun, edozeinek ez dituen... berar dira bertsolari ona izateko.

Emen jartzen den bertso onekin, eman zuen Lasartek bere esker ona.

Orain ez daukat nik kanturako indarririk eta usterik,
izanez ere ez zait komeni
olako buru austerik;
baina ez dago jende jator au
bertso bat gabe uzterik,
zuek eskertu eta agurtu
ez det egingo besterik.

Xole Erbiti


† GOTZON EGAÑA MITXELENA
JAUNA
(Begoña Mujikaren alarguna)

Atzo hil zen 88 urte zituela, Eizakoak el Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren
- Golan bego -

Anai-arrebak: Maria (†), Ignacio (†) eta Jesusa Lekuona (†), Natividad (†) eta Jose Manuel Garzia (†), Agustina (†), Tomas (†) eta Maria Dolores Mañanos (†), Pedro (†) eta Maritxu Barreneketa (†), Hilario (†) eta Teresa Ormazabal, Teresa (†) eta Agustín Garagorri, Juan Luis (†) eta Teresa Arregi, Arantxa Mujika (†), Imanol Mujika (†) eta Mirentxu Mujika, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaldeak.

Haren animaren alde otoliz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIAK ETA ERDIETAN, SAN JOSE parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ballesteros, 8.
OHARRAK: Gorpu laguntza bere familia artean egingo da Pollue hilerria. Errosario Santua arratsaldeko 19:15etan errezatuko da.



Donostian, 2007ko abuztuaren 30ean.

GUDA SOLLUBE MENDIAN

70 urte dira Sollube mendia egunetan ketan ikusten genduala. Egun larriak areek!

Zamudio'n egon giñan gudeari iges eginda. Ille pare bat igaro genduzan an, San Antolin baseleizea baiño goratuago, furundarenatarren baserrian. Andik ikusten genduan Gamizmendiaren gaiñetik, Sollume ketan.

Beste gauza arrigarri batzuk be ikusi genduzan egun areitan: Egazkiñen arteko guda aidean eta egazkiñak sutan jausten, Derio'ko illerrian ilten ebezanen danbata-otsak, zaurituak geure etxeko atarian egarriaren egarriaz sokorruka ura eskatzen.

...

Sollube'ko gualdia zeaztuteko diru-lagunatza Bermeo'n eskatuta, liburu bat argitaratu dau Manuel Vargas Alonso'k, idazpurua “Bermeo y la guerra civil” dala. Eta gero onen laburpen bat “La batalla del Sollube” deritxona.

Argi Galbarriatu'k emoten dauskuz albiste oneik Deia'n 2007-10-13 egunean.

Liburu osoak 700 orialde daukaz eta Bermeo'ko liburutegian ikusi daiteke, baiña laburpenak 400 orrialde daukoz eta liburudendetan dago salgai.

Lenengo albisteak batu bear izan dauz ikasleak eta orretarako orduko aldizkariak aztertu dauz, baita lekuko izan ziranengandik agoz-ago be.

Sollube'ko gualdiak garrantzi aundia eukan guda aretan eta odol asko isuri zan mendi orretan. Amar egunetan milla gudari baiño geiago il ziran bertan.

Ildako batzuk Fruniz'ko illerriak lurperatu ebezan eta gaiñean burdiñezko kurutzetxu bat ezarri. 1960n. urte-inguruan Madrid'etik etorri ziran azurrak “Valle de los Caidos” era eroateko, baiña batzuk garrikoan “zazpiak bat” ikurra eukan. Orreik be eroan ebezan, toki ori alde bietako illak an obiratzeko asmatua zala-ta. An egongo dirala uste dogu izen eta guzti.

Sollube bearrezkoa zan matxinatuentzat mungialde guztiari urretik begiratzeko, naizta Franco beran Errogoitiko Metxika ermitetik begira egon. Gaiñera Gamizmendi'n egoan “Bilbao'ren burdiñezko garrikoa” edo “Cinturón de hierro” eta oneri erasoteko Sollube zan ikus-tokirik ederrena.

OLAZAR'tar Martin'ek

ONERA DA JAUNA

Gizadi maitegarri
geratu barik dabil
beraren lanetan,
bizia deika dauka
goizetik gaberañño
asmo aundietan.

Lanak ederrak dira
biziak eskaturik
lurraren goi-beran,
ogia sinismenez
lortu bear dau lurrez
estura artean.

Jauna begira dago
laguntza eskeiniaz
erri maitiari,
egitan onbera da
esturetan lagunduz
gizasemeari.

KURUTZEAZ GAIZKATU GAITU

Gizadi samindua
itsututa aurkitzen da
bizitza larrian,
nora-ezean dabil
goi-bieak galduta
ezbear aundian.

Aita on Jaungoikoa
egiz, errukitu da
gizadi larriaz,
ta Semea bialtzen dau
gizadia askatzera
maitasun guztiaz.

Semea gertu dago
Aitaren esanera
erria zaintzeko,
Kurutzan emoten dau
bizia maitasunez
gizona askatzeko.

EMOIDAZU KEMEA

Jainko maitegarria,
emen, dago seme bat
gorantza begira,
zure aunditasuna
maitasunez batera
bardin gabea da.

Zu barik ezin bizi
ta kemen billa nator
Jaun guztiz Altsua,
bizitz maitegarrian
zu zara lurtarrentzat
itz osasuntsua.

Laguntasun bikaiña
betorkigu zerutik
Aitak bialdurik,
lurtar seme-alabak
jokatu al dagigun
gogoz indarturik.

ZURE EGIA DOT IBILBIDE

Egirik ederrena
Jainkoaren itza da
zeru ta lurretan,
Uts eziña da berez
eta maitegarria
bere sormenetan.

Egi zoragarriak
mundua goratzen dau
maitasun onenaz,
egi ta maitasuna
biak alkartu dira
zuzentasunagaz.

Nire ibilbidea
Janaren egia da
bizitza guztian,
ez dago gauz obarik
Aitaren itza baiño
zeru ta larrian.

PAULIN

ERRIBERAKO EUSKALERRIA NAPARROAN

Liburu berria oso ederra agertu da Naparroan, Erriberako berri asko ematen dizkigu. Ogeita iru erri dauzkagu ta Euskal Kultura esnatzen dijoakigu zutik eta gartsu dijoa azaltze danen aurrean. Berri emallea Erriberako idazlea da euskaldun berria Diego Pascual eraso delakoa. Ez da gaurkoa Corellan jaioa 1898 garren urtean eta 1974 garren urtean Bilbon illa. 36 idazlanak Euskadi aldizkarian agertu zitun Erriberako abertzaletasunari buruz...

Aurten aztertzen ditu liburu onetan Erriberako idazle gazte batek Jabier Sainz pezonagaz, Corellako semeak ain zuzen. Azterketa onetan aberastasun aundi bat azaltzen digu eta liburu onetan ikusten dugu nola jaiotzen dan aberzalen nortasuna Erriber an.

Izen aundi batzuek gogo onakin ari dira zabaltzen aberzaleatasunaren bideak, adi bidez Erriberatarrak direnak Nabarro Billoslada, Iribarren eta Manuel Irujo. Nabarro Billosladak Bianako semeak Amaya izenarekin argitaratu zuan Amaya delako eleberria indar aundiko itzekin amaitzen dena (Euskalerrria ez da beinere ilko).

Euskalrrio araudia 1931 garren urtean lizarran sortu zan.

1931 garren urtean ekainaren 4an. Manuel Irujok gizon ospetsuak, Lizarrako semea Erriberan jaiokak aunitz ale gindu zan inguruko gizasemeak esnatzen.

Jose Maria Iribaren idazle ospetsuak biltzen ditu bere iriko, Tuterako esaldiak Euskal aztarnakin eta euskararen izenekin sustrai garbiak agertzen dituztenak.

Jabier Sainz pezonagak hamaika napar aberzaleak aztertzen dun Erriberako bazterretan. Orrela ezagutzen dugu Celestino peralta Lapuente kaparrosoko semea.

Maite du erribera ta ikusten du toki ederra aberatasunez jantzia. Tuter, Corella ta Lodosa lurralde ederrak bezala ikuritzen zaizkio. Ez dio arritzen erriko semeak kaliforniako lurraldeak neurtzea maiz.



Xabier Sainz Pezonaga ziñezko euskalzalea dugu ta erriberako euslerriari egitazko atea irikitzen dizkio. Bere kokia erriberan dauka irakazle bezala. Joan leike erriz erriberako euskalzalei euskal gogoaren esnatzean euskal erriak ba dauka orrelako ezitzalle baten bearra. Ara emen ezitzalle ziñezkoa.

LATXAGA

Los vascos de la Ribera de Navarra,

*en la obra periodística de Diego Pascual Eraso
(Corella, 1898 - Bilbao, 1974)*

JABIER SAINZ PEZONAGA

Incluye
CD-ROM
COMPACT
disc
DATA STORAGE

PAMIELA

JAKINTZA ERDI- ETA GOI-PALEOLITIKUAN

Gizaki barriak edo gaurkoak bereizten dauzana, jakintza da. Neandertala ez da gaurkoen taldekoa, baiña ez da jazoten ori ainbeste, gorputza bardiña ez daukalako, gaurkoak egiten dabezan jakintza-aurrerapenak beraganatzen ez dauzalako, izkuntzarik ez daukalako, etikarik eta estetikarik eskuratu ez daualako baiño.

Moula (Frantzia'n) 100.000 urte dirala agiri dira arrizko lanabesak eta sei neandertalen azurrak, baiña 1999n. urtean oneik giza-jaleak edo kanibalak zirala agertzen da. Beste batzuk ezetz diño. Beste batzuk, oster, giza-jalea izatea gizatasun onaren ezaugarri dala be bai.

Beste alde bat: Neandertalak ezin dau euki sinbolorik, ez erlejiñorik, ez etikarik, ez arterik eta izkuntza be ez eban artu. Gaurkoen antzeko gizakiak bai, oster.

Gaurkoen antzeko gizakiak goi arri-zar eta paleolitikuan ikasi ebezan gauza orreik.

MUSTERIENSE DERITXON JAKINTZA

Arrizko lanabesak erdiko arrizar edo paleolitikotik etozan.

Musteriense-jakintza Europa'n eta urreko sortaldean sortu zan, würm, deritxon azkenengo izotz-aldian. Zeozer dago lenago Afrika'n eta Asia'n.

Urteen joanean aldatu egin zan, baiña zabala ta idegia dan tankera bat da, baiña emen dauko aldakuntza ta aurrerakuntzarik aundiena. Apaingarriak eta illetak be or sartzen dira.

Arrizko lanabesak, atxelense'ko bifazak edo aurpegi-biko lanak baiño obeto landuak dira, agodunak, 60 mota dagoz azurrezkoetan. Luzarorako egiñak dira eta lan baterako.

Izena Le Moustier (Dordoña, Frantzia'tik) dator eta XIX gizaldian artua da. Iru alde daukaz barruan: Musteriense, auriñazense, magdalenense. Guztiak dira errien izenak.

NEANDERTALAK ETA JAKINTZA MUSTERIENSEA

Arri-zar edo paleolitiku-erdia Europa'n, Asia'n eta Afrika'n agiri izan zan eta atxeliense'ko lanabesak aurrera egin eben musteriense'koen antzera Neandertalak eta musteriense batera dagoz.

Baiña au orrelan ez da agertzen urreko sortaldean, ez dira bereizten neandertalak edo gaurko gizakiak. Europa'n bai bereizten dira neandertalak eta gaurko gizakiak:

Neandertal=musteriense, cromagnon=auriñazense, an antza jakintza biak bardiñak ziran, an jakintzaren prestamuak edo mailleagoak ziran nagusi. Orren aundia ete zan neandertalen jakintza?

Baietz diño batzuk, eta eder-lanean, erlejiñoan, izkuntzan be orixe esan bear dala.

ERLEJIÑO A NONDIK DATORREN

Neandertalak euren illak zelan obiratzten ebezan ikustetik dator euren jakintzaren oiñarria: 1) Il-obiratzea, gorpuea gizajaleen eskuetatik ateratzea da eta maitasuna ta itzaltasuna adierazten dauz. Geroko bizitzaren itxaropena be bai? Bai, oikune edo rito batzuk ba-dagoz illetan.

Zelan il-obiratzten eben neandertalak? Leku askotan dagoz, Atapuerka'n be bai. Emen azurren leiza deritxon orretan 27 gizaki dagoz obiratuta, 300.000n urtean. Ondamendi bat izan ete zan? Ala gorpuak ezkutatu gurea? Ori litzake lenengoz agertzen dan gorpuak alboratzea.

Afrika'n be ba-dagoz illobiratzeak, baiña argiago Europa'n eta urreko sortaldean: Zulo lautua, leiza-barruan, illobiak be bai. Neandertalenak dira eta argi dago gorpu-jale edo "karroñeru" ai kentzeko egiñak dirala.

Oikuneagaz alboratuta dagoz, baiña zergaitik burua kenduta? Gurariz!

Siria'n ume neandertala (Damasko'tik 400 km. iparrera): Igoerea da aukeratua, besoak luze eta bernak oker daukoz, kare-arri landua buru-gaiñean eta iru zokodun sukarrria biotzean. Oikune edo ritual bat agiri da or eta gaiñera illobian lora-autsa edo polena dago. Lorea eskintzen ete eben ala berez etorria ete da? Ala langilleak euren oiñetakoetan eroana? Itxasoko kapar edo kontxa bat be ba-dago ondoan, basauntzaren buru-azurrak inguruan. Ori sinbologia dala dirudi. Neandertalak dira, baiña ba-dagoz zalantza batzuk.

Neandertalak ez dira iñoz be agertzen leizetatik kanpoan, bai, oster, gaurko gizaki antzekoak.

NONDIK SINBOLOAK ETA EDERTIA?

Neandertalen sinboloak azur eta arri landuak dira, musteriensekoak.

Aiztoak, aizkorak eta olakoak ez dira agiri. Oneik ez dira sinboloak, lanerako bear diran gauzak baiño. Sinbolikuak ez dabe ezer egiteko balio. Aurrera doazenak

edertasuna be baillatzen dabe, lanabesak eurak be ondo apainduak eginda, ori 200.000n urtean Edertasunerako lenengo simetria bifazak edo aurpegibiko lanakesak dira eta simetriak nai dauana edertasuna da.

EDERTASUNA UNE BATEN ALA MAILLAKA LORTUA?

Atxelense'koen bifazak 1,50 milloi urte daukez, Altamira'ko margazkiak 14.000 urte baiño ez. Urte asko dago or bitartean edertasuna lortzen joateko, maillaka.

Lenengo agertzen dan apaingarria kapar edo ostra bat da. Egiña da ala bertan berez fosil biurtua?

Neandertalak azurretan be egiten ebezan apainketak eta markak, zuloak, geometri-lanak (350.000 urte!) eta homo erectus'en lana. Zarrak dira, giza-lana dauke ez berezkoa, ez dira zeozertarako egiñak, edertasun billa doa or gizakia, batez be jeometriagaz edo simetriagaz.

Olako lanak asko ugaritu ziran goi arri-zar aroan: Lanabesak, irarketak, irudi egiñak...

Aurrerapen aundia, zaldi baten irudia be agertzen da! Esan lei Altamira'rako bidean gagozela. Zelako ugaritasuna or! Asi Rusia'n eta cromagnon'era arte.

Zergaitik eta zertarako margozten eben Altamira'ko gizakiak? Artea? Erlijiñoa? Majia? Baiña geuk be geuren buruari itaundu geinkio: Zergaitik eroten doguz apaingarriak saman edo eskutorrean? Bardin! Nozkoak diran? 28.000 urtetik 10.000 urtera bitartekoak eta leizetan dagozan lez, Würm aldikoak.

Neandertalak gutarikoen trebebideak artu ebezan: Lanabesak, sinboloak, edertia, baiña gutarikoen antzera egin ete ebezan ala eurak aurreratu ete ziran? Gauza biak batera?

Edertiaren sorrera eta izkuntzarena batera datoz. Aurrean dagon zeozer adierazteko era bi dagoz. Gauza orren irudia egin-margazkia (jeroglifiko idazkeraren antza), edo berbeagaz adierazo (ideolojiko idazkera). Bisonte bat margotu edo "bisonte" berbea esan. Biak dagoz gauzearen orde.

Iru gauza dagoz argi: 1) "Homo sapiens'ek" gaurkoai emon dautse bidea gizarterako eta trebetasunerako, bizilekua apaintzera, ekonomia eta sinboloak erabiltera. 2) Jakintza maillaka korapillatzen doa. 3) Afrika'koa alde batera itzita baiño ezin geintekoz arritu agertzen diran edertasunakaz eta gure ezagupideak eroan gaitue luzaroan Altamira'ra: 200.000 urtean doa egiten aldakuntza ori, maillaka.

OLAZAR'tar Martin'ek

OTOIA

Lurtar gizonak gara
zeruetara adi
itxaropenetan,
egiz, gauza aundia
gora begiratzea
otoi ederretan.

Perutxo, zintzo zintzo,
eskermiñetan dabil
otoiaren bidez,
argia ta poza
asmatuten ebazan
erregu bitartez.

Itz santu bikain orrek
zer daukazu zuregan
Aitaren aurrean,
Aita egi-egitan,
gizonari laguntzen
zeru ederrean.

JESUS SALBATZAILLEA

Izen maitagarria,
zeru goi ederrek
sortu zan lurren,
zeregin aundiz dator
Ait onak bialduta
gozonen onean.

Gogorik onenagaz
esana egiteko
eldu zan lurrera,
aunditasun guztia
lurtar guztian alde
gogoz eskeintzera.

Bizia ederra zan
baiña ederragoa
esana eitea,
Kurutza gogorrean
gizonak kendu eutsen
beraren bizia.

PAULIN

ETSAIAK

Ainbeste mota diran zomorro ugariak naikoa izango ziran munduko landara, abere eta gizakiak ilteko, baiña zomorroak be euren arerio edo etsaiak daukez eta orrelan lortzen da izadiaren dendu edo ekilibrioa.

Aldi baten izozte edo lei ikaragarriak izan ziran eta ortik etorri zan zomorroen ondamendi bat. Orain dirala 300 milloi urte, karbonifero aldian, ba-ziran zomorroak eta orduko narrazti aundiak ez eutseen bildurrik. Ondoren 200 milloi urteetan asko ugaritu ziran zomorroak. Orain 150.000 urte muzkerrak agertu ziran eta oneik zomorro-jale aundiak ziran.

Eun milla urte geroago uztan kalteak egiten asi ziranean asi zan gizakia euren aurka jokatzeko.

Asieran, XIX gizaldiaren aurretik ez egozan sareak baiño burruka orretarako, baiña gaur kimika-bideak dagoz: sulfato de cobre, nikotin, kare bizia... Tximist-indarrak be lagundu dau.

XX gizaldian jakitunak, entomologoak, lagundu dabe asko zomorroen aurka. Burruka orretarako beste zomorro batzuk artu dabez lagun, esaten dan lez "nire arerioaren arerioak, nire gaganak dira".

Riley jakintsuak erabili eban lenengoz 1874n. urtean olako zomorro-jale bat eta Ingalterra'tik Zelanda Barri'ra bialdu eban amona mantangorria. Ango zorriak ilteko. Ondo urten eban gauzeak.

Amona mantangarriak mesede asko egin dau munduan. "Jainko Onaren zomorroa" esaten jako orregaitik. Ego gorriak daukaz, agoa gorrizkea, zazpi puntu baltz gaiñean, eta luzeerea zazpi mm. Onek zorri asko jaten dau. Baiña baratz bat ondatu eban berak eta beste mantangorri bat ekarri eben lengoa galtzeko (1931). Onek bestearen soiñean egiten ebazan arrautzak eta urtetan eben kokoak oso jatunak ziran, eurak dagozen soiña eta ingurua jaten ebezan.

1895n. urtean Ameriketn agertu zan koko bat mendi osoak kimatzen ebazana eta Atlantik itxasoa igaro eban Europa'ra zabaltzeko. Batu ziran entomologoak eta arerio jakon zomorroa aurkitu eutsoen.

Gaur mundu osoan dabiltz zomorroak zomorroen ondatzaille. USA'n bakarrik milla jakitun dabiltz burruka au indartzen.

Iñurri aragi-jaleak dira arerio Ameriketn eta Afrika'n. Milloika aginlari alkartzen dira eta edozein bizidun ondatzeko gai dira.

Mantis lekamea da orrean arerio, baiña beste asko agertu dira.

Zapoak eta igelak be zomorro-jale onak dira: Illun-nabarretan etxe argidunen inguruan egoten dira zomorro egalaria argitara noiz etorriko, kristala jota lurrera jausten danean ureratzen da zapoa eurak jateko.

Afrika'n kamaleoia da zomorro eiztari ona, euliak edo kokoak ondora etorri artean geldi-geldi egoten

da ezkutauta, eta gero, miña luzatuz, arrapatzen dauz zomorroak.

Muzkerrak be zomorro-jale onak dira, esan dogun lez.

Ba-dagoz beste pizti eta abere batzuk be zomorro-jale diranak, esaterako satorrak eta saguzarrak.

Eta txoriak, iñurri-txoria esaterako. Oneik dira zomorroen areriorik gogorrenak. Egaztien pikua beti arrapatzen dauz zomorroak, eltxoak, eta olakoak. Txoriak ondo aztertzen dabez zugatzen enbor-inguruak be zomorroak aurkitzeko, esaterako okillak.


Txepetxak be, txikia izan arren, zomorro asko jaten dauz eta euren arrautzak be bai. Bardin egiten dabe gabontzak.

Beste txori batzuk, uzta apur bat jaten dabelako kaltegarri dirala uste izaten dogu, baiña asko geiago laguntzen dabe zomorroak janda.

Abereen gaiñean be ibiltan dira txoriak, an dagozan zomorroak jaten.

Enarak edo eleiak gure artetik joango ba-lira, euliak laiñoen antzera etorriko litzakiguz!

OLAZAR'tar Martin'ek



NONDIK NORA

Guk aukerea be'geunke gura dogun lekuan bizi izateko, non bizi gurako geunke, udan naiz neguan? Udabarria Paris'en, udea ondartzan edo mendian, negua toki beroan. Ori litzake gure ametsa, baiña gutzat eziña, egorik ez daukagulako.

Ba, egaztiak aukere ori dauke eta udarako naiz negurako tokia aukeratu egiten dabe. Orretarako ibillaldi luzeak egiten dabez. Eta olako ibillaldi luzeak egin arren, ez dira galtzen, gu galduko gintzaken lez.

Gaur ondo dakigu txoriak nondik nora joaten diran:

– Elaia edo enara Afrika'ko Tropikora joaten da negurako eta udabarrian etorten da 20.000 km. eginda.

– Kurriloak urrillean batzen dira eta V itxurako taldeetan joaten dira.

– Ankaluze edo flamenkoak antzera batzen eta joaten dira.

– Zikonia edo armiarma udaren asieran joaten da eta sanblasetan etorri.

– Gure txoririk geienak neguan Afrika'ra joaten dira. Batzuk Lurrart-Itxasora be bai, beste batzuk bertan ikusten doguz neguan otzez eta gosez, esaterako txepetxak eta belak.

Eta Ameriketarako txoriak nora?

Kanada ta Ipar-Ameriketan, lurra zati bat edurpean geratzen da eta txoriak otza dauke alde batetik, eta gosea lagun bestetik. Urten egin bear.

– Goglu'k: Kanada'tik agustuan urteten dau eta danak batzen dira Florida'n eta andik, zeruak eurak be illundu egiten dabezala, Kuba'ra, Jaimaika'ra eta Arjentina'ren goi-aldera doaz negutea igaroteko.

Eta orrelan beste txori askok be.

EGAZTIEN EGUTEGIA

Egaztiak ille bakoitxean euren zeregiña eukiten dabe, eta zeregin ori beteteko tokia be bai:

1) Urterrillean: Gabontza asten da abesten eta eguzkitan zozoa be bai.

2) Zezeillean: Amillotxak asten dira abiak egiten.

3) Martian: Txinboak daukaguz kantari. Artatxoriak abiak egiten.

4) Aprillean: Ba-datoz negua kanpoan egin dabenak: kukuak, enarak, elaiak.

5) Maiatzean: Abiak egiten diardue.

6) Bagillean: Abiak egiten eta abestiak ugari.

7) Garagarrillean: Umeak urten dira arrautzetatik.

8) Agustuan: Elaiak ba-doaz negu-lekuetara.

9) Iraillean: Egaztien urteera bandaka.

10) Urrilla: Otzaldiak datoz eta aateak agiri dira etorten.

11) Zemendia: Zelaietan mikak eta oillagorrek agiri dira.

12) Abendua: Izadia lo dago, ate-ondoan dardar txantxangorria. Asko knapoan negutean.

ERAZTUNAK EGAZTIAI

Neguan kanpora doazen txoriai eraztuna ipinten dautsee ankan toki batzutan eta erantzunak be artzen dira udabarrian eta iñoz bide orretatik gizakien ezkontzaren bat be gertatu al izan da.

Plinio Zarrak orain 19 gizaldi au iñoan: Zaldi-lasterketen barria etxera ekarteko, enara bat izaten zala bide.

Olako mezuak ulertzeko kode bat dago laterri-artean.

Frantze'n urtero 150.000 txoriri ipinten jakez eraztunak. Laterri Batuetan eta Kanada'n 600.000'ri urtero. Guztiz orain-arte 12 milloiri ipiñi jakez eta 900.000 erantzun artu dira.

Oso ezagunak dira gudaldietan uso mezulariak, sarritan eta ondoren oanagaz erabilli dira. Orain irratia daukagu, baiña uso mezularia isillagoa da. Europa'ko II Gudan Ameriketarrak 36.000 uso erabilli ebezan.

Baiña euren aldian pertsiarrek, greziarrak eta erromatarrak be erabilli ebezan.

Gogoratu baiño ez Noe'k gertakizuna, bere kuxatik urten aurretik.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

23.-AZKENENGO 50 URTEAK

AZTERTZAILLEAK

Adorno ta Markuse marx-zaleak sortu eben Frankfurt'eko eskolea. Egoera txarra egoan aldi aretan naziak lenengo eta II guda gero. Gure filosofiak ameriketara iges egin bear izan eban.

Onein elburua gizartea aztertzea da, Marx'en dialektikaz baiña ez sobiet'arrakaz.

ADORNO (1903-1979)

Gizarte aberatsak eta goseak illik bizi diranak gogoratzen dauz.

Fazismu guztiai dautse gorrotoa, Errusia'koari be bai.

MARKUSE 1818-1979)

“Neurri bakarrek gizona”,1964n. urtean argitaratua ,da bere libururik onena. Au be gizarte-aztertzailea da baiña Freud'en aurrean dagoala. Freud'ek onartzen dauan zapalkuntzaren bidea ez da onartzen, beste kultura bat eskatzen dau.1968n. urteko iraultzaren aurrean.

...

ERMENEUTIKAREN BIDEA

Argi berba egitea eta itzulpenak ondo egitea eskatzen dabe eta idazkiak azaltzeko bidea da euren ermeneutika.

Besteai lagundu bear jake, esanak eta idatziak ulertzen..

Norberak norberaren burua be ulertu egin bear dau eta mundua ulertzen alegindu.

GADAMER (1900-2002)

Heidegger'eri jarraitzen dautso, baiña Platon eta Aristoteles aitzu barik eta Hegel bere erara artuta..

Beti aurrean daukagun mundua eta inguruko gizakien ulermena kontuan artzea,ori da ermeneutika..

Izkuntza da orretarako bidea, batez be alkar-izketea.

...

ERAKUNDE-BIDEA (Estrukturalismoa).

Izkuntzalariak asi eben bide au eta gero filosofoak jarraitu.

SAUSSURE izan zan asi ebana (1915).”Barri-aldiaren ostea” edo “post-modernidad” esaten jako bide oneri.

1979n. urtean Lyotard'ek sortu eban “Barri-aldiaren ostea” ori eta “post-modernidad” berbea be berak asmatua da. Eta or dago pop artea,rock eresiak, eta hippiak.

68n. urteko iraultzak il ebazan Buru-Argien gizabidea eta Angland'eko garbikeria (puritanismo). Ortik sortu zan “pentsarea makala”Battino'k deritxan lez, “pentsaera nekatua” dala diño Bataille'k eta “deskonstrucción” Derrida'k, “izkuntza-jokoak” ostera Lyotard'ek. Or sortu zan 68n. urteko oiua:”Irudimena agintaritzara”. Eta ortik datoz aspaldian albotik dabilzan ekintzak:”Feministak”, “ekolojistak”, “omoseksualak”...

Filosofo on bi begiratuko doguz Lyotard eta Derrida.

LYOTAR(1924-1998)

Lengo filosofi-erakundeak berba ta berba baiño ez dabe egin,”metanarratiba”k dira.Esaldiak izan bear dabe nagusi.

DERRIDA (1930)

Judatarra zan eta orregaitik alboratua. Sorbona'n izan zan irakasle eta gero beste leku askotan.

Lengoa “logozentrismo” zan eta “metanarratiba” artzeko aldatu bear gara eta ortik etorriko da “dekonstrucción”

Pentsaera orretan gizona ezerezean geratzen da.

...

AMAITZEN:

Filosofia III mile-urtera nekatuta eldu jaku eta azken-azkenean gizakiaren eriotzea iragarri dau, lenago beste batzuk Jainkoaren eriotzea iragarri eben antzera.

Or amaitzen da Buru-argitudunak arro agertu eben gure aldiko filosofia. Orrantza bultzatu eban gure mundua Nietzsche' k.

XX gizaldiko guda bien bitartean sortu da negar-aldi ori eta, arro egoan Marx-bidea be Berlin'go ormeagaz batera jausi zan.

Erreta dagon mundu orren ke-artean agiri dira itxaropenaren argi motel batzuk:Izate-zaletasuna edo eksistentzialismoa, izkuntza-bideak,... baiña laster amaituko dira.

Eta ori orrelan dala, trebe-bideko arloak aurrera doaz bildur barik eta sendo, baiña Jainkoa il dabenak eurak geratu dira ilda.

Ez daigun aitzu gizakiaren duintasuna eta billatu daigun egia, orixe izango da filosofia egitea.

OLAZAR'tar Martin'ek
 (“Palabra” agialetxearen “Historia de la Filosofía” tik)

(DIARIO "DEIA": 2004-10-10)

Idaz-lan au idazten giarduela irakurri gendun DEIA´n albiste au. Ez dogu besterik egiten euskeratu baiño.

"Des-eraikuntza"ren filosofoa dan Jacques Derrida il da.

Des-eraikuntzaren burubideak egin eban ospetsu mundu guztian, batez be USA´n.

Jacques Derrida 74 urteko filosofoa, "des-eraikuntza" deritxon burubidea bultzatu ebana il zan atzo goizaldian Paris´eko gaiso-etxe baten, bare-sare´ko min-biziak eraginda.

1930n. urteko uztaillaren 15n. egunean jaioa zan El Bihar (Arjelia`n), 1962n. urtean bere gurasoak ordainkitatu eben etxean., Magrebi lurralde onen askatasuna lortu zan urte beratan.

Derrida izan dogu munduan osperik aundiena izan dauan filosofo frantzesen arteko bat. Berak edestiari egin dautson ekarpenik aundiena "des-eraikuntza"ren burubidea da. Berba orrek auxe esan gura dau: Filosofo klasikuen idazkietan asita berbeak dauzan adierazpenak aztertu bear dirala. Des-eraikuntzaren burubide au ospetsu egin zan munduan, batez be Usa´n eta an Derrida benetako filosofi-izarra zan.

Derrida´k asko idatzi dau eta goi-maillako irakasle izan zan ikastetxe askotan, esaterako Harward´en. Yale´n eta John Hopkins´en., baita Paris´eko Sorbona´n be.. Filosofiaren munduan egin dan azterketa sakon baten aurrelaria da eta gai au irakasteko bideak zabaldu dauz eta orregaitik sortu eban 1985n. urterarte zuzendu eban Filosofia´ren laterri-arteko Ikastetxea 1983n. urtean.

Beste arlo askoren artean, politikan be sartua zan Derrida .Oneik dira bere ekintzak:

jakitun txekiatarrak lagundu eutsen, Afrika´ko Apartheid´en aurka jokatu eban eta ardura aundiaz begiratzen eban palestindarren egoerea".

Gure aldiko filosofiak arranoak egazkadarik egin bari jarraitzen dau

OLAZAR



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

**BAI DOATSU
BEARTSUAZ
ARDURATEN
DANA**

Neke ta samiña sartu dira lurrean giza zoritzatxarrez, ezak ta mingorriak artu dabez bizitzak gozez ta negarrez.

Nora-ezean dabiltz ainbeste giza seme zoritxar miñean, esturaldi aretan, adiskideak nai dauz txarraren menpetan.

Laguntzaren gogoa sortu da gizonetan esturaldi artan, zorionekoak, bai, biotza errukiorrak ordu larrietan.

ETSAIA

Maitasun arrigarriz Jainko Alguztidunak sortu eban lurra, lurrari emon eutsun gogorok onenagaz bizitza indarra.

Baiña txerren zur dabil gaiztakeri gogorrez beraren lanetan, lurtarren gizadia beregandu gura dau artu-emonetan.

Gaiztakeri gogorra urrezko agertzen dau bizitzaren alde, oi, txerren, gogor dabil, txokolate opaka ta dana guzurrez.

**KIRSTO
BEARTSU
EGIN ZAN**

Aitarekin batean zeru-lurren Jabe zan Jesus gure Jauna, Aitak bialdu eban giza-semeen artera Seme on kutuna.

Seme onak Aitari baietza emon eutson gogorik onenaz, ta Jesus gizon legez agertuten da lurrez maitasun guztiaz.

Jaungoiko izatea ez dau, sarri, agertzen beren egitetan, beartsuen antzera gizon izateagaz agertuz eitetan.

**ATSERRI TA
LURREAN NAGUSI**

Bagi aurrez daukagu izadi orlegia jakintzaz beterik, lur barruan daroa bizitzaren indarra ondo, orniturik.

Lur alboan daroaz itxaz zabal urdiñak mundura begira, lurra ta itxasoa ondasunez beterik aurkituten dira.

Guztion Jaun Jabea zerutik adi dago maitasun onian, itxasoa arraiñez ta lurra onginaiez Aitaren aurrrian.

PAULIN

IZKUNTZEN KOLONIKERIA

OARRA:

Esan dogun lez, Gotzon Egaña il egin jaku, baiña azkenengo idazlan au daukagu erderaz eta euskeratu egingo dogu. Artu daikegu bere azken-nai edo testamentu lez.

Antza dagoenez, politikak eta jakintzak eraginda, sarritan esaten da españerea euskaldunentzat ondare bat dala.

Asteko esan dagigun espānerarik ez dagoala.

Nebrija'k 1492n. urtean, lenengo gramatika idatzi ebanean, eta geroago Aita Mariana'k guztien izkuntzari gastelera esaten dautse. Orregaitik espānera ea da besterik orduko inperio-audikerien asmakizun bat baiño, jakobinoa dan ardatzkeriaren indarragaz agertua. Gaurko Lege Nagusian espānatarren izkuntza gastelera dala esan da.

Diñoenez, euskaldunak izkuntza ori erabilten asi ziran erdeldunakaz batera eta izkuntza orretan idatzi ziran gure Lege Zarrak.

Gipuzkoa'ra begiratzen ba'dogu ostikoka lez sartu zan, euskerea baztertzeko ta itoteko gogoaz, erdi-ugartearen eta inperioaren izkuntza-batasuna apurtzen ebalako. Erri euskaldun txikietan (eta orduan erri guztiak ziran, Donosti be barru dala), euren edestian, XIX gizaldira arte, ez zan beste izkuntzarik, ez kalean eta ez beste lekuetan, erabilten euskerea baiño. Gitxi ziran gastelera erabilten ebenak, eta oneik be ez errian talde txikietan baiño.

Erdera egiten eta idazten eben, bai, erri-aurreko erakundeakazko artu-emonetan, oneik erdeldunak ziralako, eta abadeak be bai eskolatuak ziralako eta aundikien artean. Erri zeiak, eta ori ziran ia guztiak, euskerea baiño ez eban erabilten, eta ori zan gure aberriaren ezaugarria.

Karlostarren gudak amaitu eta gure gudariak Bergara'n batu ziranean, Gudalburuak gasteleraz egin eutsen berba eta ori onartua zala, ez alde eta ez aurka ez zirala agertzen, ikusi ebanean, eskintzen eban bakea pozik artzeko, laguntzailleak auxe esan bear izan eutsoen: "Ez dautzue ulertzen".

Ez noa azaltzen pulpo bat zan laterriaren eta Eleizearen aldetik zelako zapalkuntza ta iraiñak artu ebezan. Orduan Eleizea be euren adiskide ta laguntzaillea izan zan. Edo

Euskalerrian jaiok izan arren (Kortea aunditzat artzen ebelako edo Gastelako diruagaz bat eginda euren buruak saldu ebezalako) ez eben nai gure erriarentzat ez Ikastetxe Nagusirik edo eskolarik, etxean, gure baserrietan bakarrik erabilli eta euren aurka iñoz agertu ez daiten.

Ortik aurrerako lana, Madrid'ek egin eban: Politikako gurariak baztertu, gu euskeran abedetu-bage biurtu eta nai ta nai ez inperioaren gastelera gaiñeratu, beste laterri koloni-zaleak artu ebezan bideak edo txarragoak artuz, Eleizearen eta militarren izukeria erabilliz.

Ez ete da izkuntzaren kolonikeria gaur arte erregeak eta gobernuak darabillena, gu espānatar biurtzeko?

Eta iñoz ez dagiala esan euskerearen elertia urria dala. Gaur jakintzadun deritxoek izkuntza guztiak igaro bear izan eben ezjakintasunaren basa-mortua. Zizeron'ek berak diño latiñak elerti gitxi eukala eta zientzietan be ez zala erabilten eta orregaitik greziatarrak Erromatarrak "barbari" basatiak esaten eutsela.

Bai, edestia euren erara idazten dabenak irabazleak dira.

GOTZON EGAÑA MITXELENA (†)



IPUIN SARIKETA

- 1º SARIA: JOXEMARI MURUA GOÑI
- 2n. SARIA: ZIORTZA ARRIEN ORBE
- 3n. ASIER LEGARRETA LEGARRETA
- 4n. PALMIRA MERIO PORTELA
- 5n. ALBERTO NARBAIZA ETXEANDIA

7.- BALTZAK

Baltzak asko zabaldu dira mundura, batez be Asia'ra ta Ipar-Amerika'ra, baiña lan onetan Afrika'n daukerzan bizierak aztertuko doguz.

SARTALDEAN

Atlantik-itxasotik Tchad ugartera ta Sahara'ren ipar-aldean, Europa osoa baiña lurralde zabalagoa da aztertzen doguna.

Toki euritsua da eta Niger ibaiak 4.200 km'ko bidea egiten dau. Senegal ibaiak be antzera.

Askotariko endak eta erriak, izkuntza asko eta erlejiño asko be bai, aurkitzen doguz or. Zelaietan nomada lez bizi dira eiza ta arraintza bizibide dabezela.

Etxeak meta-antzera egiten dabez lurrez eta orriz, erlauntzaren antzera. Inguruan soloak eta lorategiak.

Sendi-buru batzuk lurraren jabe dira eta biziteko naiz gauzak gordeteko estalpeak daukez, leio bagerik, eta barruan mai eta oge estuak eta aurki txikiak. Ol zarrez egindako kutxa batzuk.

Euren lana eiza, arraintza, nekazaritza ta etxegintza dabez gizezkoentzat eta emakumeak goruetan, jozten, janariak gertatzen, lorategiak zaintzen eta atxurtzen naikoa dauke.

Umeak sorbaldatik ezkegita eroaten dabez eta amak arrotxuak izaten dira, ondo jazten zaleak.

Oialak beti margo bizidunak izaten dira.

Jai aundietarako "buru" jazten dabe gainean.

Eraztunak, koillarrak, eskutorrekoak... astunak eta onak daukez eta belarrietako arrakadak ederrak. Garrikoak pitxiz apaintzen dabez.

Salerosketak egiteko azoketara joaten dira.

Ospakizun arrigarriak ikusten dira jaiotza, ezkontza eta erlejiño-egunetan, etxeetan naiz errietan. Illetak zelan egin ondo zeaztuta dauke: lenengo eriotzea adierazteko eta dieabruak uxatzeko danbadak izaten dira, gero gorpua eroatean tam-tam bat jotzen dabe oiñatzak neurtzeko, lurperatzean emekumerik ezin daiteke egon, orregaitik aurretiaz agur egin bear jake; gorpua aitz-zulo batera sartzen dabe, aurpegiak estaldu eta mamu-antzeko bat egin eta dantzak ugari izaten dira, gorputzak koipez igortzi-ondoren eta jantzi apaiñakaz.

Margoetan gorria da geien agertzen dana. Biziazen eta alaitasunaren irudia da eta mutillak gorputza gorritzu egiten dabe, gaisoai be auts gorri bat botaten jake. Gorputzeko margoak onelan doaz: Begietan buztin zuria, bularrean baltza, besoetan auts beillegi edo oria. Aurpegia estaltzeko mamu-jantziak, bildurgarriak izaten dira.

Olako oiturak gaur galtzen doaz, aurrerapena sartzeaz batera.

ERDI-ALDEAN

Baso-batz aundiak dira nagusi: beroa ta euria ugari (Paris'en lako 10). Bedarra ta landarrak aurrez. Zugatz

aundiak alkarren ondoan, 60 m.'ko tantaiak, eta azpian zugatz txikiak (20 edo 30m). Inguruan tximiñoiak garrazika, zugetzarrak maltzurak, txori margotsuak, zomorroak, elefante batzuk marfil-zaleen bildurrez.

Ekaitzak eta trumoiak noz nai.

Lur barriak lantzea azperrekoa da, beingoan landarak jazten dabezelako.

Jenterik ez dago olako tokietan, basa-gizon langilleak izan ezik.

Artoa, arta txikia eta juka artzen dabez.

Bedar igarrak erreten dabezenean, orrelan lurra ongarritu egiten dabelako, piztiak iges egitendabe larri, esaterako gazelak, basauntzak, panterak eta samaluzek erotuta lez joaten dira.

Etxeak lurrez eta laztoz egiten dabez eta biribillak izaten dira eta alkarren ondoan, alkarrari albisteak tam-tam'en bidez emoteko

Jainko izunak daukez eta aztiak ugari. Aldean eroaten dabez ezbearrak aienatzeko iruditxuak.

Emakumeak margoz eta apain jazten dira, ezpanetatik

zurezko ustaiak dabezela eta arro.

Aurrerapena asi da sartzen eta oiturak galtzen, baiña Afrika aundia da!

SORTALDEAN

Emendik zabaldu zirala mundura lenengo gizakiak esaten dabe jakitunak.

Baso-baltzak dira eta ugarte zabalak daukez barruan (Biktoria: 600 km. luze, Tanganika). Mendi aundietan edurra agiri da.

Etiopiarrek erdi-zuriak dira. Munduko kaferik usaintsuena dauke.

Leiñu bakartiak euren oiturak daukez: Dantza pozgarriak, eta egun onak emoteko erak: besoak aztinduta, txaloka, azkon pozoiuak dardaratuz, auzpeztuz, bularra gogor joka, atzea emonda...

Ostatua emoten zaleak dira, frutak eizakiak edo oilaskoak edo ezta edonori emoten dautsoe, baiña emaz onei duruaz erantzun bear jake. Ez emon diru-pepelik ez dabe artzen, nai dabena txanponak dira.

Eiztari onak dira, baiña eizakiak aitz-zuloetan gordeten jakez...



9.-ABADE EUSKALDUNAK

(BERAZATEGI-OMINGUEZ)
1936 KO GUDA EUSKALERRIAN

1936ko gudaldian abade euskaldunak jazan eben zapalkuntza, ostean gitxi zabaldu da. Zergaitik? Lenengo amabost eraillak eta bosteun erbesteratuak izan ziran parokietako abadeak matxinoen aldetik edo oneik eraginda artu ebelako zigorra eta España'ko agintari matxinoak arazo ori isilpean eukitea nai ebelako.

Abade ta lekaide euskaldunen salakuntzak iru ekiñaldi daukaz:

1^a.- Gogorkerizkoa eta denpora gitxikoa. Or 15 eraillak.

2^a.- Abadeak erbesteratzeko eskariak eta erantzunak.

3^a.- Eusko gudaroztean abadeak kapellau sartu ziran eta oneik, gero, baituak, epaituak eta zogortuak izan ziran, batzuk espetxeratuak, beste asko erbesteratuak...

Abade abertzaleak Gipuzkoa'n izan ziran geien zigortuak.

Batzuk ELA/STV'n egin eben lan, esaterako Polikarpo Larrañaga, J.M.Barandiaran, Alberto Onaindia, Aitzol. Alberto Onaindiak gero irratian egin eban lan aundia, bai BBC'tik eta bai Paris'tik. (Aita Olaso izena erabilli eban Paris'tik.

Euskadi osoan gudaldian eta alde bietatik, 50 abade il ebezan, baiña ori ta guzti be Euskalerrria oasi edo on-one bat izan zan Erdi-Ugarte'ko eleizan. Zergaitik ori? Araudia onartu zalako eta abertzaleak ondo zaindu eben euren erria. Barbastro'n, esaterako, egozan abade guztietatik %90 erail ebezan.

Zergaitik ez eben il abade geiago matxiñoak emen?

Ona emen arazo onen edestia: Donosti'tik Katoliku-Ekintzako batek deitu eutson Goma Kardiñalari abadeak



Jose Maria Korta gudarien kapellau ospetsua zan eta Asturias'en il zan. Argazki onek illeta agertzen dau.

ilten ebiltzala Kardinala España'ko Gotzaiñen burua zan. Onek egin eban berba Franco'gaz eta lortu eban geiago ez iltea abaderik.

Beste erirtxi batekoa zan Segura Kardinala, Sebilla'ko goi-gotzaiña, integrista gogorra. Onek ondo ikusten eban guda-giroan eta bear izan ezkerro, abadeak iltea

Itzultzaille ta ber-idazle lez au esan bear dot: Segura Kardinalari buruz ori esateak erritu egiten nauala.

Ara zer egin eban Segura Kardinalak abade euskaldunen alde: 1.-Carmona'n espetxean egozan abadeak ikustera joan eta eurai eleiz-baimenak emon. Beste leku batzutan gotzaiñak ukatu egin eutsezan. 2.-Sevilla-Huelva'n misiolari lez abade euskaldunak artu eta eurai lagundu. Neu be illebeta egon nintzan an lan au egiten eta bazkaria bere jauregian emoten euskun eta berak bedeinkatzen eban maia. 3.-Franco ez eban onartu paliopean katedralean eta beretzat kapellau bat eskatu ebanean, ukatu egin eutson (ondo egiña). Madrid'tik ekarri bear izan eban bere kapellaua Franco'k. 4.-Abade euskaldunak, Carmona'tik urten ziranean, batzuk Sevilla'ko parroki aundietako arduradun izendatu ebazan, esaterako D.Santos Arana Makarena'ren parrokirako. 5.- Bere kapellaua, Ginea abadea, arabarra zan.

Mateo Muxika Gasteiz'ko Gotzaiña integrista zan baiña semonarioan abertazaletasuna indartzen zala, irakasle abertzaleak egozala, esaterako J.M Barandiaran, eta 1936'an EAJ / PNV'ri aurkarkia emotea ontzat artu ebala salatu eben, eta beartuta España'ko bandera'ri zin egitea agindu eutsoenean, askatasunaren izenean ezetza emon eban. Laster eroan eben erbestera. Erailteko bidea be artuta egoan. Bere bizia arriskuan egoala-ta, esan eutsoen erbestera joateako.

Baiña bera laster joan zan Erroma'ra eta an barri zuzenak emoten ebazan. Antxe itzi eban gotzain ardurea eta laster etorri jakun politiku eskoitar bizia zan Javier Lauzurika. Apostulo-zaindari lez. Au da, bere bikarioa izan zan Ormazabal'egaz batera 500 abade erbesteratzearen errudun.

Gero Frantze'ra joan zan D. Mateo eta Karmelo Ballester Gotzaiñak ekarri eban Zarautz'era eta antxe ikertu neban. Benito Nafarrate nire ikaskidea izan eban kapellau. Eldu ta laster joan jakon ikertzera Ballester. Au beluniko artu eban eta onek besarkatu egin eban: "Gozai anai lez eta martiri lez besarkatzen zaitut" esan eutson. D, Karmelo Ballester gotzaiña frankotarra zan baiña bioz onekoa.

Zenbat izan ziran abade ta lekaideerasotuak?
Zelan edo alan 3 000!

OLAZAR'tar Martin'ek

AITA SANTI ONAINDIA (1909-1996)

Amoroto'n jaio zan eta Larra'n, Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n egin ebazan ikasketak. Gero, guda-aurretik eta ostean Hoz de Anero'n (Santander), Gasteiz'en, Logroño'n eta Eibar'en egon zan. Guda ostean eriotzarako epaia emon eutsoen Gudarien kapellau izan zalako, baiña ez zan betetu –eta espetxetik urten ebanean bere nagusiak Hoz de Anero'ko basamortura bialdu eben, “abitua garbitzeko”.

Toli orreitan igaro ebazan amabi urteak izan ezik, bizitza osoa Larra'n igaro eban.

1926n. urtean asi zan idazten Euskal Esnalea'n, 17 urtekoa zala. Gero Teresatxu deunaren bizitza idatzi eban, baiña au galdu egin da.

1951n. urtean atera eban liburu eder bat “Milla olerki eder”. Guda-ostean lenengo liburua izango da, baiña baitu egin eutsoen eta neskame garbitzailleak atera ebazan batzuk. Gaiñera erbestetik zorion-eskutitzak artu ebazan: Agintariak erbestera bialdu ebezan libururen batzuk, euskerearen alde jokutzen dabela sinistu-erazoteko.

Urte orretan asi zan gero Karmel birtuko dan Karmengo Amaren egutegia ateraten Hoz de Anero'n nagusi zala. 1959n. urtean asi zan Olerti argitaratzen.

65 liburu inguru idatzi ebazan. Eskuartearen erabiltzen dogu 5 ale daukazan Euskal Literatura'ren edestia. Ale bat falta da amaitzeko eta gertu ei dago. Atera-bearrekoa da. Geroago laburpen oso egoki bat argitaratu eban

ikastoletarako, baiña au “h”rik ez eukalako, alboratu egin eben ikastoletatik jaurlariak.

Aldizkarietan asko edatzi eban: Euzkadi, Eguna, Ekin, Karmel, Eusko Gogoa, Zeruko Argia, Olerti, Goiz-Argi, El Bidasoa, Jesus'en Biotzaren Deia, Agur, Príncipe de Viana, Zer, Gure almanaka.

Euskerazaintza'ren batzarretara utsik egin barik etorten zan. Olerki lirikuak egiten be ona zan. Ona emen bat:

BEERANTZA?

Beera oa, eguzki on,
ortzi zear beerantz...
Beera baita, ene erria!
Norantz ote? Norantz?

Illunetik jaikiko ote,
eguzki antzera,
orren bizi opa dugun
askatasun txera?

Ik azken izpiak aulduz,
mendi-bestaldetik
illargia arnas jori,
or jaikiz jadanik.

Bi eskuak alkar-tente
otoitzari nago,
urretxindorrek goizari
baiño be miñago.

Eta ik, ene erri erria,
berantza jotean,
ba al duk norbait goraka
arnasa betean?

OLAZAR'tar Martin'ek

IKUSI JAUNAK EGIÑAK

Egi egitan zara
bardiñik gabekoa
Jaungoiko Altsua,
maitasun onenagaz
guri begira zagoz
Jaun errukitsua.

Jaunak lurra egin dau
ta onegaz batera
urtegi zabala,
bitzuak dira eder
mendi eta zelaiak
ta itxas urdiña.

Lurra emankorra da
gari, arto ta burdin
daukaz babesean,
ta itxaso zabalak
arrain gozoak daukaz
bere biotzeran.

KRISTOREN MAITASUNA

Jainkoaren Semea
Aitak esanda dator
gozonen artera,
giza izatea artu
Jaun izateaz batera
ta dator lurrera.

Mutiltxo baten eraz
Jainko bera izanik
amagaz bizi da,
Gizadia maite dau
argitasun guztiaz
Jaungoiko erara.

Biotz barruan dauka
egiteko aundia
salbamen bidean,
alan be gogo onez
gizadia maite dau
gogo onenean.

APALEINTZUTEN DAUTSE

Jesus, apal, bizi da
aita orde ta amagaz
Nazaret maitian,
bizi Jaubea dana
era orretan dabil
gizonen artian.

Egi pozgarria da
Jesus gizonen aldez,
gogoz, ikustea,
Aitaren izenean
ume aro bertatik
esana eitea.

Jainko Semea zana
edozein mutil antzera
dabil gizartean,
apalak dauz gogoan,
beti, ondo, arturik
gizonen artean.

JESUS KURUTZEAN

Ikaragarriena
ikusteko egoan
gizadi larría,
lurraren Jabe zana
Aitarekin batean
nai dabe iltia.

Jesus gizon antzer
agertzen zan bakarrik
lagunen artian,
iltea asmau eben
Jainko Semea zana
lurraren aurrian.

Egun larri aretan
aldatz gora daroe
Golgota mendira,
billotxik ipinita
Kurutzean il eben
lurrera begira.

PAULIN

19.– DANA URRE: MIDAS ERREGEA

(Frijia)

Frijia'ko erregea zan Midas. Bere jauregian urre ta pitxi asko eukan, beste edozeiñen biotza asetzeko beste. Baiña Midas'en biotza ez zan asetzen. Gozonik aberatsena izan nai eban.

Midas erregearen diru-goseagaz naikotuta egoan Jupiter eta onen biotza aldatzea otu jakon.

Sileno zarra bizi zan beste leku baten Bako'ren irakasle izana. Oneri Midas erregeak mezede bat egin eutson eta mezede ori ordaintzeko berak nai ebana eskatzeko esan eutson Bako'k:

– Auxe gura neuke esan eutson Midas'ek: Ikututen dodana dana, urre biurtu daitela.

Arrituta geratu zan Bako jainkoa ori entzun ebanean, baiña, Jupiter'ek esanda, auxe erantzuna emon eutson:

– Zure gurari ori betetuko dot, baiña ziur nago laster damutuko zarala eskari ori egiñaz.

Lari egoan Midas estubide ori zenbateraiñokoa zan ikusi arte. Artu eban bere eskuetan orio-ondoaren adartxu bat eta zoraturik ikusi eban urrezko biurtu zala. Urrengo loratxu bateri usain egin gura izan eutson eta loratxua be urre biurtu jakon. Ikututen eban dana biurtzen jakon urre! Baita ankapean zapaltzen ebazan bedarrak eta arri-koskorak be.

Urrengo, jauregira joan zan, jesarri zan gela nagusiko jesarlekuan eta eskuakaz ikutu ebanerako, urrezko biurtu jakon au be.

Sinistu-eziñeko poza eukan Midas'ek! Jazokizun aundi ori bear dan lez ospatzea otu jakon. Deitu eutsen mirabe guztiai eta bere jauretxean iñoz izan ez zan lako bazkari bat gertatzeko agindu eutsen.

Jesarri zan maian bere aundikiakaz batera eta mirabeak asi ziran bazakari zoragarri ori ekarten.

Baiña erregearen zori txarra! Ezer ezin iruntzi. Jakiak, ogia, ardaoa be eskatu eban eta onena ekarri eutsoen, baiña berak ikutu orduko, urre biurtzen jakozan ontziak, jakiak eta edariak! Maiaren erdian zidarrezko ontzi eder bat egoan era guztietako igalez beterik, begien zoragarri, eta bat artzeko asmotan eskua luzatu eta bat artu ebanean, urre biurtu jakozan ontzia ta igaleak. Asarretuta ezer jan barik jagi zan maitik!

Eskubide onegaz samaraiño beteta egoan, ondo damututa zorakeri ori eskatu ebalako eta pozik itziko eban barriri ainbat gura izan eban eskubide ori. Izan be, inguru guztia egoan dana urre biurtuta eta bera egarriz ito-bearrean.

Zertarako ainbeste urre! Eta oraindiño zori txar geiago ekarri bear eutson eskubide orrek! Gozeak illik ikusten eban bere burua eta urrezko biurtu zan jesarlekuan jesarrita, esku biakaz

aurpegia estaldu eban eta zoritxar biurtu jakon gurari bizia zan bere pentsakizun bakarra.

Olako une baten bere alabatxu maite-meitea etorri jakon eta beste ezer egin baiño lenago besarkatzen eta laztantzen asi jakon, eta biotza erdibitu jakon: Urre biurtu jakon bere besoetan alabatxua!

Negar baten etxun zan lurrean gizajoa, eta arren bai arren asi zan eskatzen jainkoai, kentzeko berari almen kaltegarri ori. Len ainbeste maite eban urrea, orain gorrotogarri biurtu jakon eta eskari barria egiten eban artean, lurrean etxunda barau egin eban. Orretan jainkoaren erantzuna etorri jakon:

– Entzun dogu zure eskaria. Zoaz Patroklo ibaira eta angu uretan buzti zaite eta galduko dozu almen ori.

Almen ori emon eutson Bako bera zan Jupiter'en erabagi ori ekarri eutsona. Ikusi eban jainko nagusiak ikasi ebal Midas'ek berak emon gura izan eutson irakatsia eta kendu eutson almen ori.

Beingoan joan zan Midas Patroklo ibaira eta an bere burua busti eban. Arrezkero ibai ori entzute aundiko biurtu zan, bertan urre-kozkorak aurkitzen ziralako.

Etixeratu zan Midas erregea eta pozik ikusi eban kenduta eukala zoritxarreko almena. Laster etorri jakon bidera urre biurtuta itzi eban alabatxua. Artu eban besoetan eta eskerrak emon eutsozan Jupiter'eri zoritxarreko almena kendu eutsolako.

gero bizi izan eban barau gogorra ausi eta bere burua asetu eban, ogi-zatiak eta ur-zurrutak mundu onetako aberastasunik aundiena zirala uste izanik.

Arrezkero beste bat izan zan Midas erregea eta ez eban geiago bere zoriona urre ta lurreko ondasunetan ipinten.

OLAZAR'tar Martin'ek



BELUGI!

Bakioko oposizino abertzalea asarratuta dabilku, antza, agintean dagoan alderdi eskoitarrak arnasea be kenduten deusolako. Negar eta gedar. Baia, nor da situazino ilun orren benetako arduraduna? Nok itxi deutse, barrian, politico BALTZeri esku-eskuetan Ericoagintea? Norena izan da, ba, ori alan izateko, elekzinoetarako gestino txarraren ardurea? Noren erruz zarie/gara situazino negarrari orretara eldu?

Zeuek eukitako boto guztiak batuta besteak eukitakoak baino geiago dirala esateak ez dau, ez deusku, oin ezertarako be balio. Elekzinoetara bananduta joateak oin agirikoa dan kalte ori ekarri oi dakar, beti eta edonon. Ala, inok uste lei, benetan, eskoitarren erreakzinoa, autarkikoa eta baztertzaila izan barik, bestelangoa izan eitekeanik? Bakotzak berak lortutako botoak baino ez ditu, ez geiagorik. Bakotzak berea. Jakitun egon bearko zeunkien, leenagorik, baia.

Zetan ibili zarie elekzionak egin baino leenagoko ileetan, ba? Badakigu zeuen artean batzarrak egon dirana, lista baten alkarregaz joateko. Eta ez zarie gauza izan, ezelan be, aurki, beratan bat egiteko beste. Eta iru alderdiok lista bat presentau bearrean, lau txo!, lau lista agertu zenduezan. Baia, noren buruan sartuten da olan "Bakioko UPN"ri irabazi gura izatea? Ori bai, inuzentekeri politikoa! Umekeri edo miopia politikoa!

Oin, gedar eta negar egin baino leen, ganera, erritarren aurrean, oba izango litzake, esango bazeunskigue zegaitik ez zarien gauza izan alkartuta presentetako. Zegaitik ez dozuen bear dan moduko gestino politikorik egin gaurko situazinoa ebitetako. Jakinda aurretik, erri onetan BALTZak dauken indar elektorala sendoa dana. Jakinda erritar asko bero-bero eginda egon dirana, agintarien urigintza politika neoliberala dala-eta, batez be. Jakinda, seguru antzean, barrian be ez dozuela eukiko olango aukera obarik politicoantinazionalista eta erri-saltzaileak agintetik beingoz kenduteko. Kanbio sozio-politikoa bearrezkoa izan da eta areri itxaroten egon gara. Baia, uts egin deuskuzue!

Susmo txarra daukogu askok artuta, ez ete dan izan oneetariko errazoirien bat edo batzuk edo danak edo geiago, gaurko situazino baragarriaren iturria:

- alderdikeri utsa (norberaren listea, gura ta gura ez, presentau bear izana)
- goikoen agindua (PSNeko Puras-sindromea)
- itsukeri politikoa (oposizinoko urko alderdi politikoa/ak gitxitzat artu izana)
- Oportunismo elektorala (erritarren asarrakuntzeari probetxua atara gura izana, norberaren alderako, baia)

- inuzentekeri edo miopia politikoa (erriko eskoitarren indarra asko makalduko zalakoan, euren indarrari gitxi eritxi izana)

- agintean egoteari bildurra (egundoko pastela BALTZak atzean itxiko euen)

Bateko edo besteko, ez dozue jakin kalkulu eta, txarrena ondino, ondorio elektoralak neurriten. BALTZak errian beera egin arren be, zuotariko edozein alderdik baino askozaz be boto geiago atara daue eurak. Naikoa kontzejal eurak euratar gura dauena egin eta desegiteko. Eta zelan, ganera!

Egina eginda, baia, galdua galduta be. Gestino politiko txarraren ondorios, lortutako emoi txarrakaitik, presentau ete dau zeuen alderdietan inok dimisinorik? Ez, aurki.

Erritar asko bear-bearrezko dan kanbioa elekzinoetan etorri eitekeana sinistuta egon gara. Desepzino eta desilusinoitzela artu genduzan, bananduta presentauko zintziena jakinkeran. Ondino andiagoo, elekzinoetako emoiak jakinkeran.

Nok lortuko dau oin BALTZen politika zementista eta eskoitarra? Nok lotuko erriko ondare arkitektoniko-istorikoaridesagertu eragiteko darabilen politika neoliberala? (UPNren antzerakoa) Nok lotuko erriko lurra kapital erruki eta biozbakoari etenbako saldu eragite ori. Nok jagongo komunidade indigenaren mila urteko ondare eta balorelinguistiko-kulturalak, ganera datorkun neurribako inbasino culturalplanifikautaren aurrean? Nok jagongo erriko balore naturalak, basoak, itsasaldea, baliabide eta ubide idrografikoak, ekologia, azken baten, BALTZen neoliberalismoaren neurri eta kontrolbako desarrollismoaren aurrean? Nok...?

Ez, zeuek ez, oposizino abertzaleko lagunok, boto geiago euki arren!

Gauzaeztankeriak eraginda egin dozuen gestino txar orren ostan, nok sinistuko dau errian, biar-etzi erriko agintean egonda, naikoa gauza izango zarien gauzak artez eroateko eta egiteko bestekoak? Sinisgarritasun politikoan flotazino mugatik beera jota zagoze.

Jokabide politiko torpe aregaz BALTZen agintea legislatura askotarako sendotu egin dozuelakoan gagoz.

Baltzingoa eta gorringoa. Ai, zelango pare!

IBARRALDE

Eritxi Politiko Independienterako Bakioko Mintegia

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²